

Jakinarazten da Alkateak, 2025eko uztailaren 17an honako Dekretu hau eman duela:

“2025eko irailaren 13an Oxirondon San Martinetako feria egitea aurreikusi dela jakinarazi ondoren, udaleko nekazal teknikariak proposatu zuen, besteak beste, honako oinarri hauek onartzea:

- Talo txosna bat jartzeko gune baten adjudikazioa arautuko duten oinarriak.

Hori ikusita, 2025eko uztailaren 1ean egindako dekretu baten bitartez erabaki zen deialdia egin eta deialdia arautuko zuten oinarriak onartzea.

Eskaerak aurkezteko epean Miren Sorkunde Pedrosa Pellejero andreak (Goierriko taloak) eskaera aurkeztu du.

Hori ikusia eta kontuan izanda jaso den eskaera bakarra izan dela eta udaleko nekazal teknikariak egindako proposamenari jarraituz,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: 2025eko irailaren 13an Oxirondon San Martinetako feriaren barruan txosna bat jartzeko gunea Miren Sorkunde Pedrosa Pellejero andreari (Goierriko taloak) adjudikatzea deialdia arautu duten oinarrietan jasotako baldintzetan.

BIGARRENA: Erabaki honen jakinarazpena udalaren web-orrian argitaratzea. Argitalpen horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluari jarraituz.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri udaleko nekazal teknikariari ematea eta argitaratu beharreko jakinarazpena ere bidaltzea, argitaratzeko.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, iragarki hau udaleko web orrian argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean iragarki hau udaleko web orrian argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki iruditutako beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 45. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2025eko uztailaren 17a

